

LESLIE KANES WEISMAN

Emakumeek ingurune propioa izateko duten eskubidea

Manifestua

LESLIE KANES WEISMAN
xxxxx da. xxxx. bizi da.

Aitor dezagun: Gizonak eraikitako inguruneek gizartean emakumeak bete behar duen eginkizunaren gainean eraiki diren definizio patriarkal eta konbentzionalak berresten dituzte eta gure seme-alaben garunetan mezu sexistak grabatzen. Ingurune horiek miopia espazial batera eraman gaituzte eta ondorioz gure buruaren gaineko kontzeptua mugatzera, bizitzeko eta lan egiteko moduei buruzko ikuspegiak eta aukerak mugatzen dizkigute, eta gure autonomia egarria asetzeko behar ditugun inguruneak ukatzen edota debekatzen dizkigute. Alabaina, iritsi da begiak ireki eta zapalkuntza espazial horren jite politikoan erreparatzeko garaia.

Louis Sullivan etxe orratzen aitatatzat jotzen den arkitektoak definizio hau egin zuen halako batean Henry Hobson Richardson bere kidearen eraikin batetaz:

Horra hor gizon miragarria, gizontasunez betea, maskulinotasunaren ikurra, izaki fisikoa bailitzan eraikia, merkataritza harremanei, negozio antolatuen izpirituari, garaiko botereari, aurrerakuntzari, indarrari eta indibidualismoaren mirespenari eta nortasunaren indarrari eskainitako monumentua. Horregatik, mundu antzu zeken honetan eraikin hori aipatzen dudan bakoitzean, gizon bat bailitzan hitz egiten dut, botere sortzailea oroitarazte duelako, beste batzuk mestizajearen gorespena egin duten bitartean.

ARKITEKTURA IRUDI

Ingurune eraikia kultur izaki artifizial bat da. Gizakiaren asmo eta eskuhartzeak damaiote forma inguruneari, eta ingurunea bizirik dagoen arkeologia bihurtzen da; espazio horretako indusketak esango digu gure sozietatean erabakiak hartzen dituztenen lehentasunak eta sinesmenak zein diren. Eraikitze prozesuak zein formek beraiek kultur balore jakin batzuk adierazten dituzte eta beren baitan gordetzen guztioi dagozkigun jokabide arauak.

Hasi industriaren magoek egin dituzten enpresa dorreetatik eta Ozeko Magoaren Esmeralda Hiriraino, gizonek beren irudia islatzen duen ingurune eraikia sortu dute. XX. mendeko hirietako etxe orratzak, ikuspegi patriarkalen gailurra, handitasunaren, tentetasunaren, indarraren mistika maskulinoa du oinarri: ego maskulino hanpatuak puztutako globoa. Gure hirietako etxe orratzak lehia bizian ari dira, norgehiagoka, onarpena eta nagusitasuna lortu nahian, eta aldi berean gizakiaren nortasuna eta bizi kalitatea txirotzen.

Etxea, betidanik emakumeekin zerikusi handia izan duen lekua, etxe orratzak adina gurtutako ikono arkitektonikoa da. Emakumea txiki-txikitatik hezten dute "etxeakoandre", "neskame" eta "etxeako arduradun" eginkizuna betetzeko. Etxeak, luzaroan emakumearen eremu berezitzat hartua izan denez, sexuaren arabera eginkizun banaketako estereotipoak berresten ditu eta modu zolian familiari buruzko ikuspegi tradizionalak gordetzen. Hasi gela nagusitik eta mahai buruari dagokion lekuraino, "etxeako jaunari/familia buruari" ematen zaizkio agente lekuak, gune pribatuak (bere estudioa) eta atsedeen lekuak (bere zaletasunetarako lekua, besaulki berezia). Etxekoandreak ez du bere leku propiorik eta beti dago zerbitzuko espazioetara lotuta. Egongelan anfitrioi da, sukaldean sukaldaria, haurren gelan ama, logelan amorantea, garajearen berebilaren gidaria, eta abar. Etxea sexu bakoitzak betetzen dituen eginkizun konbentzionalen leku-denborazko metafora da.

Eginkizun eta jarrera kultural horien onarpen eta adierazpenak nabarmen-nabarmenak dira oraindik ere egungo etxegintzan, diseinuan ez bada ere, erabileran. Emakumeak, soil-soilik etxearekin identifikatzen direlarik, hazkuntza, hezkuntza, lankidetzat, subjektibotasuna, emotibitatea eta fantasiari loturik daude; "gizonaren mundua" —gertakizunen eta eginkizun "garrantzitsuen" mundu publikoa—, ordea, objektibotasunari, ez-pertsonalizazioari, lehiakortasunari eta arrazionaltasunari daude lotuta.

INGURUNEA OZTOPO

Espazio eta eraikin publikoen diseinuak eta erabilerak, garraio sistemak, auzoak eta etxebizitzak eragin sakona dute emakumeen bizitzan. Lege diskriminatzaileek, gobernu arauak, kultur jokabideek, praktika informalek eta profesionalen kontzientziak ezak emakumea bigarren mailako izaki bihurtu duen bilbea harilkatu dute.

Emakumeak espazio publikoarekin ia zerikusirik ez duten izakitzat jotzen dira. Eraikin eta espazio publikoetan oztopo fisiko eta kulturek baztertu egiten dute haurrarekin doan emakumea. Kotxean haurra daraman

emakume batek ate biragarri bat edo metroko torniketea zeharkatu behar duenean pertsona ezindu bihurtzen da. Leku publikoetan ez da ohikoa gune antolatu bat ikustea bularra eman behar duen emakumearentzat edota haurrari oihalak aldatu behar dionarentzat; emakumea eta haurrak etxean, dagokien lekuan egon behar duten izakiak direla ulertu behar da.

Berebil bat lortzeko aukera gutxien dutenek erabiltzen dute garraio publikoa, batez ere gazteek, adinekoek, gutxiengoek eta diru iturri urriko langileek. Katetoria horietan gizanezkoak ere sartzen diren arren, lanera joateko garraio publikoaren mende dauden emakumeen kopuruak bikoiztu egiten du gizonena herrialdeko 12 area metropolitarr handienetan. Industrien kokapena eta etxeko lanak egiteko lekua hirietatik kanpo egoteak, garraio publikoak urri diren lekuetan alegia, murriztu egiten ditu hiri barruan bizi diren emakume familia buruen edo hiriaz kanpo autorik gabe bizi diren emakumeen enplegu aukerak.

Klase sozioekonomiko guztietako emakumeak izaten dira biktimak etxebizitzaren bat alokatu edo erosi behar dutenean edota aseguruak edo finantzaketa hipotekarioak lortu behar dituztenean. Estatuaren diru laguntzaz antolatutako etxebizitza programa batek —*Section 8*— ez ditu onartzen bakarrik bizi direnen eskariak, eskatzailea adinekoa edo ezindua ez bada, ez eta elkarrekin bizi diren sexu bereko nahiz desberdinekoen eskariak, ahaide odolkideak edo ezkontideak ez badira. Mota horretako arauak berdintasuna ukatzen diete etxebizitza merkeetara iritsi nahi duten alargun eta etxekoandre marjinatu gero eta ugariagoei, horietako gehienak oso diru sarrera mugatu edo urriak baitituzte. Era berean, programa horrek sexuaren edo egoera zibilaren araberrako diskriminazioa ezartzen du. Alabaina, azken 12 urteetan, "indibiduo primarioak" (beste norbaitekin bizi direnak, nahiz eta beren artean familia loturarik ez izan) dituzten etxeak lau bider gehiago hazi dira familia osatzen dutenenak baino. 1973an, etxekoandre familia buru 65 urtetik gorako emakumeen % 76 bakarrik bizi ziren. Emakumeak gero eta urte gehiago bizi dira eta familiaren egitura aldatuz doa modu ukaezinean; horra bi arrazoi garrantzitsu, gero eta zaharragoa den biztanleriaren esku etxebizitzaren eskaintza, kokapen eta prezio aukera zabalagoa jartzeko eta dependentzia maila desberdinen errealitatea onartzeko.

Premiazkoa eta funtsezkoa da ingurune zentzuzkoa, bizitza ere zentzuzkoa izango bada. Emakumeek geure bizi estiloari doitutako eraikin, espazio eta garraio publikoak eta etxebizitzak eskatu behar ditugu, geure bizitzaren errealitateari erantzuteko modukoak eta ez geure gainean eraiki diren fantasia kulturalen gainean eraikitakoak.

1971eko Gabonzahar egunean, New Yorkeko udalak 5. Kanean zeukan etxe zahar bat okupatu zuten 75 emakumek. Urtarrilaren 29an, honako deklarazio hau kaleratu zuten:

Geure kultura propioa eraiki nahi dugulako,

Gure gain jasotako estereotipoak gainditu nahi ditugulako

Gizarte usteldu honek eskaintzen duen "eskubide berdintasuna" onartzen ez dugulako,

Bizitzen, hazten, geure buruaren jabe izaten... jarraitu nahi dugulako.

Eraikin hau emakumeontzat hil ala bizikoak diren gauza batzuk lortzeko okupatu dugu: osasun sorospena, haurren zaintza, elikatze egokia, arropa eta liburuak trukatu ahal izatea, emakumeen egoitzak, lesbianen eskubideak defendatzeko bulegoa, bilera areto bat, eskola feminista, drogaren mendekoak sendatzeko lekua.

Badakigu udalak ez digula emango behar duguna.

Orain badakigu udalak ez digula utziko geuk behar duguna geuk egiten.

Horregatik eraso digute.

Gizonengandik eta sistematik kanpo dihardugun emakumeak garelako eraso digute; beste era batera esanda, emakume iraultzaileak gara.

ESPAZIOA BOTERE

Espazioa eskuratzea eta erabiltzea egintza politikoak dira. Eskura dauzkagun espazioak, eskura ez ditugunak edota ukatzen dizkigutenak boterea eman diezagukete, baita kendu ere. Espazioek nabarmendu egin gaitzakete edo mugatu, hezi edo ahuldu. Emakume guztion funtsezko premiak asetzeko moduko ingurune arkitektonikoez gozatzeko eskubidea aldarrikatu behar dugu.

5. Kaleko eraikin hura hartu zuten emakumeek eskatzen zituzten espazio motak gure bizitzan falta zaizkigun espazioen irudi argigarriak dira. Haurtzaindegiak, etxekoandre baztertuentzako instalazioak eta emakumeentzako baliabideak banatzeko zentroak nahitaezkoak dira emakume guztiok enplegura iristeko dauden edo egon daitezkeen oztopo eta trabak gainditzeko. Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako zentroak ezinbestekoak dira, alde batetik, emakumeei eta beren seme-alabei erasotzaileen kontrako babesleku bat eskaintzeko eta, bestetik,

beren bizitza, beren etorkizuna eta beren seme-alaben ongizatea berrikusteko. Premiazkoa da ihesi dabiltzan emakumeentzat eta bortxakeriak jasan dituztenentzat larrialdi egoerako etxebizitzak egitea. Gizarteratzeko zentroak eraiki behar dira prostitutentzat, alkoholikoentzat, drogadiktoentzat eta kartzeletatik atera diren emakumeentzat. Premiazkoa da, halaber, emakume etxegabeentzako babes zentroak antolatzea. Emakumeentzat osasun instalazio egokiak eta dezentralizatuak behar dira. Emakume guztientzat ateak irekita izango dituzten klinikak behar dira, segurtasunez abortatzeko. Emaginen eskuetan dauden erditzeko zentroak funtsezkoak dira geure gorputzak geuk kontrolatuko baditugu eta "erditze eskubidea" berreskuratu nahi badugu. Leku eta espazio horiek guztiak ingurune arkitektoniko berriak dira eta gure gizartean gertatzen ari diren aldaketa sakonak islatzen dituzte, eta aldi berean agerian uzten emakumeen aurkako zapalkuntza eta eskubide ukatzea.

ZER EGIN DEZAKEGU EGOERA HORREN AURREAN?

Gure herrietako inguruneak erabiltzen dituztenen % 50 baino gehiago emakumezkoak gara; alabaina, emakumeok ez dugu eragin handirik izan gure inguruneak egituratzen dituzten arkitekturak asmatzerakoan. Emakumeentzako espazio berriei lotutako legeria eta dirulaguntzak dauden kasuetan, horiek emakumeen aktibismoaren, emakume mugimenduen eta kargu politikoren bat betetzeko aukeratuak izan diren feminista apurren - zorionez geroz eta gehiago dira- lanaren ondorio izan dira gehienbat. Etorkizuneko espazioen eraikuntzak eta antolakuntzak emakumeen ingurune premia guztiak asetzeko izan behar badute, emakume bakoitzak bere espazioaren arkitektoa izan behar du, hau da, emakumeak inguruneari buruz iritzia emateko gaitasuna duela onartu behar du eta bera bizi eta lan egiten duen espazioei buruzko erabakiak hartu behar ditu. Emakumeek modu kontziente eta ikuspegi politikoak jardun behar dute. Emakumeok geure buruari galdetu behar diogu ea nork irabaziko edo galduko duen gure auzo, etxe eta lantokiei buruz hartu ditugun erabakiekin; berebat, gure bizitza eta baliabide urriko giza taldeen bizitza erraztuko dituzten proposamen guztiei laguntza eman behar diegu.

Baiezta dezagun: eraikitako ingurunea gehienbat gizonezko azal zurien subjektibotasunaren emaitza da. Ez zaio baliorik falta baina ez ditu gizaki guztiak aintzat hartzen. Feminismoak ondorioz ekartzen du ingurune gabezia hori erabat aitortzen dugula, eta aitorpen horretatik abiatuz pentsatu eta ekiten dugula.

Emakume mugimenduen eginkizunik garrantzitsuenetakoa, beraz, gure esperientziaren adierazpen osoa agerian jartzea da, horretan oinarri harturik, eraikitako ingurunea berriro interpretatzea eta egituratzea. Ezin izango ditugu emakumeen bizimoldea artatu eta errazten duten inguruneak sortu gizarteak behar bezala onartzen ez baditu emakumeak jasandako

zapalkuntzaren ondorioz baztertuta egon diren esperientzia gizatiarraren alderdiak. Elkarrekin lan egin behar dugu helburu hori lortzeko.

Kezka feminista horiek dimentsio kritiko-sozial zein espazialak dituzte. Konponbide bat bermatzeko, premiazkoak dira aktibismo feminista zein trebetasun arkitektonikoa.

Testu hau 1981ean *Heresies: A Feminist Publication on Art and Politics* aldizkarian argitaratu zen.